



“B” GUTUN-AZALAREN ESKAINTZEI BURUZKO TXOSTENA

MUTRIKUKO MERKATU PLAZAKO POSTUEN ESLEIPENERAKO LEHIAKETA

ESPEDIENTEAREN DATUAK

- Objektua: Udalaren jabetzakoak diren Mutrikuko udal merkaturan kokatuta dauden eta jarraian zehazten diren 3 salmenta-postu finkoren erabilera pribatiboa ematea, prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bidez; erabilera udal-jabari publikoaren zati bat hartzean datza, Mutrikuko Merkatuaren ordenantzan jasota dauden jardueretan.
- Postuen ezaugarriak ondokoak dira:
 - 6. postua: azalera erabilgarria: 22,21 m².
 - 5. postua: azalera erabilgarria: 22,47 m².
 - 3. postua: azalera erabilgarria: 22,02 m².
- Emakidaren epea: Jabari publikoko emakidaren iraupena 10 urtekoa izango da, emakidaren kontratua izenpetzen den unetik zenbatzen hasita. Alderdiak emakidaren iraunaldia amaitu baino lehen hala adostuta, iraunaldia 10 urte bete arte luzatu ahal izango da urtez urte.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2024ko abuztuaren 20a.
- Prozedimendua eta esleipen-modua: Prozedura irekiaren eta ohiko izapidetzearen bidez.

AURKEZTURIKO ESKAINTZAK

Proposamen edo eskaintza bat aurkeztu da:

1 zenb. ko proposamena. Erregistroko 1594 sarrera zenbakia. GOXART OBRADOREA SL

Prozedimendu honetan aurkeztu den hautagaiaren gaitasun finantzario-ekonomiko, tekniko eta profesionala eta galdatutako gainerako agiriak aztertuta, ontzat eman da.

BALORAKETA IRIZPIDEAK ETA HAUEN HAZTAPENA

Oinarrietan zehazten diren balio judizio baten menpe dauden irizpideak kontuan izanik txosten honetan kontratazio mahaiaren iritzia ematen da, datu objektiboak kontutan hartuta eman beharreko balorazioaren proposamen bat egiten delarik.

Horretarako, agiri administratiboen **Baldintza Administratiboen 27. klausulan** aurreikusten den bezala bezala hautagaiak aurkeztutako proiektua aztertu da, lortu daitekeen gehieneko puntuaketa **45 puntu** izanik.

Behin horrela eginda, honako hau izan da lortutako puntuaketa:

1 zenb. ko proposamena. Erregistroko 1594 sarrera zenbakia. GOXART OBRADOREA SL – **40 puntu.**

Ondorioz, "C" gutun-azala, hau da, Proposamen Ekonomikoa eta balorazio automatikorako irizpideak" abuztuaren 28an irekiko da, **goizeko 12:00tan**, Mutrikuko Udaletxeko batzar aretoan, **ekitaldi publikoan**.

Mutrikun, 2024ko abuztuaren 26an

KONTRATAZIO MAHAIKO IDAZKARIA

Ane Arreitunandia Elordi